


Gaur egun Bermeo auzoetan batzen badugu, mapa hau ikusiko genuke:



Mapan, argi ikusten da zein den Bermeok hartzen duen lur zatia, baita auzoak nola banatuta dauden ere. Liburutegira joan eta hau ikusirik:

a. Zein auzo dira zenbakiz markatutakoak?

b. Historian zehar hedadura desberdinak izan ditu Bermeok. Nola aldatu da herriaren egitura? Mugek zein bilakaera izan dute?

Honako hauek, 1511 eta 1514. urteetan agertutako Bermeoko kaleetako batzuen lehen aipamenak dira. Baina gaur egungo zein kaleri egiten diote erreferentzia?

Calle de Santa María

Calle de Lope Ybannes

Calle de Martin de Fullo

Calle del Castillo

Calle de la Mega de Lobos

Bermeo, paraje edo ingurune desberdinetan banatzen da. Ondoren zenbait ingururen izenak agertzen dira eta bakoitzean dauden bi toki deskribatu behar dituzue. Tokiak edozer izan daitezke: mendiak, eraikinak, kaleak, auzoak...

Alde zaharra

Portua, Lamera eta Gaztelu aldeak

Erribera aldea

Tala aldea

Portale aldea